

1883.

ORDUÑA-KO AMA BIRJIÑA-RI KANTACHOA.

GUAZEN BIRJIÑA-GANA.

Atozte, atozte, Euskaldunak,
 Birjiña Amarengana,
 Eta beraren bitartez
 Seme Jainkoagana,
 Isuri dezan zerutik
 Pekatariokgana
 Intz eder barkaziozko
 Eta graziya dana.

Etsai-artean gabiltzan
 Mundu gaisto onetan,
 Indarra billa dezagun
 Birjiñaren onetan;
 Jarririk gure asmoak
 Bere esku altubetan,
 Garailari irtengo gera
 Ditugun despidetan.

Nola Gujuli-leizeko
 Arranoen semiak,
 Amari begiraturik,
 Dakizki aize-bidiak,
 Bildur-gabe giratzeko
 Gorbeia-ko mendiak,
 Ala guk Birjiñaz garai
 Ditzagun erejiak.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.

